

# 21/12

## *irizpena*

Euskal Autonomia Erikidegoan kanpinak eta beste kanpaketa- turismoko modalitate batzuk arautzeari buruzko Dekretu Proiektuari Buruzkoa

Bilbon, 2012ko irailaren 21an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 21/12



## ***I.- SARRERA***

---

2012ko abuztuaren 1ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren idazkia sartu zen. Idazki horren bidez, Sail horrek txostena eskatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kanpaketa-turismoko modalitate batzuk arautzeari buruzko Dekretu-proiektuaren gainean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

Galdetu den Dekretu-proiektuaren xedea, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean kanpaketa-turismoko modalitate hauek arautzea da: kanpinak, kanpaketa-eremuak eta iragaitzazko autokarabana eta karabanen harrerarako eremu bereziak.

Berehala igorri zitzairen ale bat Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak eman ditzaten eta Lan Batzordeari helaraz diezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegian ezarritakoaren arabera.

2012ko irailaren 19an, Garapen Ekonomikoko Batzordea bildu zen, Irizpen Aurreproiektuaren lehenengo proposamen bat eztabaidatzeko. Egun berean, Batzordeak Irizpen Proiektu hau onetsi zuen, eta 2012ko irailaren 21ean EAEko EGABeko osoko bilkuraren irizpenpean jarri zen. Bertan aho batez onetsi zen.

## ***II.- EDUKIA***

---

Dekretu-proiektuari buruzko testuak Zioen Azalpena, 89 artikuluko 6 Titulutan eta dagozkien Kapitulutuan banatuak, 2 Xedapen Iragankor, Xedapen Indargabetzaile bat eta 2 Azken Xedapen dauzka; eta Eranskin bat, Plaka Bereizgarriak agertzen dituena.

## I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Helburua eta aplikazio-eremua
2. artikulua.- Salbuespenak
3. artikulua.- Eskumenak
4. artikulua.- Kontratuen araubidea
5. artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguruua
6. artikulua.- Irisgarritasuna
7. artikulua.- Jendearentzat irekitzea eta barne araubidea

## II. TITULUA.- KANPINAK

21/12j

### I. KAPITULUA.- Xedapen orokorrak

8. artikulua.- Kontzeptua
9. artikulua.- Kokalekua
10. artikulua.- Aldi baterako okupazioa eta kanpaketa-gunearen antolaketa
11. artikulua.- Partzeletan beste elementu finko batzuk debekatzea
12. artikulua.- Partzelen salmenta eta azpierrementendua debekatzea
13. artikulua.- Eraikinak
14. artikulua.- Karabana, autokarabana eta etxe mugikorren zaintza
15. artikulua.- Beste mota bateko establezimenduen baterako ustiapena

### II. KAPITULUA.- Eskakizunak

16. artikulua.- Hornitzea eta atontzea
17. artikulua.- Itxiturak jartzea
18. artikulua.- Kanpaketa-gunea partzelatzea
19. artikulua.- Ostatu-edukiera
20. artikulua.- Sektoreko legediari egokitzea
21. artikulua.- Lekapena

### III. KAPITULUA: Azpiegiturak eta gutxieneko zerbitzuak

22. artikulua.- Ur edangarriaren hornidura
23. artikulua.- Hondakin-urak tratatu eta ebakuatzea
24. artikulua.- Zaborrak eta hondakin solidoak tratatu eta kentzea
25. artikulua.- Larrialdi egoeretarako segurtasun-sistemak eta auto-babesa

- 26. artikulua.- Harrera
- 27. artikulua.- Informazio-panela
- 28. artikulua.- Botikina eta sendaketetarako eta lehen sorospenerako gela
- 29. artikulua.- Balioen zaintza
- 30. artikulua.- Argindar hornidura
- 31. artikulua.- Argiak
- 32. artikulua.- Higiene-zerbitzuak
- 33. artikulua.- Sarbideak eta barneko bideak
- 34. artikulua.- Aparkalekua
- 35 artikulua.- Seinaleak
- 36. artikulua.- Berdeguneak

#### IV. KAPITULUA.- Kategoriak

- 37. artikulua.- Kategoriatan sailkatzea
- 38. artikulua.-Kategoria lortzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak
- 39. artikulua.- Bereizgarria

#### V. ATALA.- Funtzionamendu-Araubidea

- 40. artikulua.- Barne Araubiderako araudia
- 41. artikulua.- Denboraldia
- 42. artikulua.- Erreserbak eta aurrerakinak
- 43. artikulua.- Sarrera-fitxa
- 44. artikulua.- Erabiltzaileentzako informazioa

#### VI. KAPITULUA.- Prezioen araubidea eta fakturazioa

- 45. artikulua.- Prezioak ezarri eta argitaratzea
- 46. artikulua.- Prezioen tarifetan sartzen diren kontzeptuak
- 47. artikulua.- Faktura eta ordainketa

#### VII. KAPITULUA.- Zerbitzuko langileak

- 48. artikulua.- Langileriaren egitura
- 49. artikulua.- Zuzendaritzaz arduratzen den pertsona
- 50. artikulua.- Harrerako langileak
- 51. artikulua.- Zaintzarako langileak

VIII. KAPITULUA.- Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak

- 52. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak
- 53. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak
- 54. artikulua.- Erreklamazio-orriak.
- 55. artikulua.- Debekatutako jokabideak eta kaleratzea

IX. KAPITULUA.- Jakinarazpenen araubidea

- 56. artikulua.-Establezimenduaren turismo-sailkapena orientazio gisa adierazteko eskabidea
- 57. artikulua.-Turismo Administrazioari jardueraren hasieraren berri “erantzukizunpeko adierazpenaren” bidez emateko beharra
- 58. artikulua.-Turismo-jardueran aritzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eta sailkapena
- 59. artikulua.- Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzea
- 60. artikulua.- Aldaketak
- 61. artikulua.- Itxierari buruzko erantzukizunpeko adierazpena
- 62. artikulua.- Kategoriaren berrikuspena

III. TITULUA.- KANPAKETA-EREMUAKI. KAPITULUA.- Kanpaketa-eremu naturalak

- 63. artikulua.- Kontzeptua
- 64. artikulua.- Hornitzaea, atontzea eta kokatzea
- 65. artikulua.- Aterpetxe finioen debekua
- 66. artikulua.- Azalera, partzelazioa eta gehieneko okupazioa
- 67. artikulua.- Azpiegiturak eta gutxieneko zerbitzuak
- 68. artikulua.- Eskakizunak
- 69. artikulua.- Bereizgarria
- 70. artikulua.- Jakinarazteko prozedura
- 71. artikulua.- Txostenak Kanpaketa-eremu Naturalen jakinarazpen-tramitean

#### IV. TITULUA.- IRAGAITZAZKO AUTOKARABANA ETA KARABANEN HARRERAKO EREMU BEREZIAK

##### I. KAPITULUA.- Xedapen orokorrak

72. artikulua.- Kontzeptua

73. artikulua.-Karabana, autokarabana eta antzeko ibilgailuetarako erreserba

74. artikulua.- Kokalekua

75. artikulua.- Aldi baterako okupazioa

##### II. KAPITULUA.- Baldintzak, eskakizunak eta zerbitzuak

76. artikulua.- Hornitzea eta atontzea

77. artikulua.- Azalerak, egonaldirako gunea eta bideak

78. artikulua.- Eraikinak eta instalazioak

79. artikulua.- Azpiegiturak eta gutxieneko zerbitzuak

80. artikulua.- Eremu berezien berariazko eskakizunak

21/12j

##### I. KAPITULUA.- Funtzionamendu-araubidea

81. artikulua.- Funtzionamendu-araubidea eta eskubide eta betebeharrak

82. artikulua.- Denboraldia

83. artikulua.- Bereizgarria eta seinaleak

##### IV. KAPITULUA.- Jakinarazpenen araubidea

84. artikulua.- Jakinarazpenen araubidea

#### V. TITULUA.- KANPAKETA LIBREA

85. artikulua.- Kanpaketa librearen debekua

86. artikulua.- Araubide partikularrak

#### VI. TITULUA.- IKUSKAPENA ETA ARAU-HAUSTEAK

87. artikulua.- Ikuskapena

88. artikulua.- Beste Herri administrazio batzuen eskumenak

89. artikulua.- Arau-haustek



## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Sustapena  
Bigarrena.- Laguntza eta Lankidetzeta

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Egokitzapena  
Bigarrena.- Partzeletako beste elementu finko batzuk

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Gaikuntza.  
Bigarrena.- Indarrean jartzea.

## ERANSKINA

### ZIOEN AZALPENA

Zioen Azalpenak hasieran aipatzen du gaur egungo turismo-eszenatokia taxutzen duten aldagaien artean lehenengoz nabarmendu egiten dela kanpinei buruzko 1981eko arauak (1989an erreformatuak) gaur egungo egoerari egokitzeko beharra. Behar hori, Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen aurreikuspenen eta haren ondoz ondoko aldaketen arabera promulgatu zen.

Inguruabar hori gaur egun are esanguratsugoa da, Turismoa Antolatzeko Legea Aldatzeko abenduaren 23ko 16/2008 Legean iragaitzazko autokarabanen eta karabanen harrera-eremu bereziak bezalako figurak agertzen direlako, gaur egun araurik ez daukaten eremuak.

Azalpenak jarraian azaltzen du turismoaren gaur egungo eszenatokian funtsezkoa den beste aldagai bat sektorearen bilakaera bera dela. Sektoreak modu nabarmenean jarraitu du bilakatzen eta inguruko lurraldeetan

establezimenduen lehia areagotu da. Horretan lagundu dute EAEn orain 30 urtetik hona indarrean dagoen diziplina baino irekiago eta malguagoa den araudiak, eta zerbitzuaren eta turismo-establezimenduen kudeaketaren eskakizun gero eta handiagoek.

Beste alde batetik, hotelen alternatiboa den ostatu hartzeko beste turismo baten garrantzi eta garapen-maila gero eta handiagoak, eta bide azpiegiturak eta automobilak garatzearen ondorioz sortutako turismo ibiltaria deritzonaren eskariaren gorakadak, gero eta gehiagotan eskatzen dute mota horretako turismoari egokitutako establezimenduak egotea eta lehendik daudenak egokitzea. Kanpinak eta autokarabanetan egiten den turismo bidaiaria azken hamarkadetan hazkunde nabarmena izan duten aisialdi-barietatea dira.

21/12j

Horregatik guztiarengatik, turismo-jarduera gorakadan dagoen askotariko eskari horri egokitzeagatik, arau berria sortzea komenigarria da, ez soilik kanpinei dagokienez, baizik eta, orokorrean, kanpaketa-turismoaren modalitate batzuekin zein besteekin bat datozen establezimendu multzo oso batekin ere bai, modalitate horiek Autonomia Erkidegoko turismo-eskaintzaren egituran integratu ahal izateko, eta turismo-jarduera arautu ez ezik benetako turismo-baliabide ere izan daitezten.

Bereziki nabarmena den beste aldagai bat da Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an barne-merkatuko zerbitzuez emandako 2006/123/CE Zuzentaraua egokitzeko beharra; izan ere, Zuzentarau horrek ezartzen du beharrezkoa dela zerbitzua ematen dutenen establezimendu-askatasuna eta zerbitzuen zirkulazio askea gauzatzea. Horretarako, Zuzentarauak zehazten du derrigorrezkoa dela beste estatu kide batzuetako zerbitzu-emaileek zerbitzu-jarduera bat egiteko aukera arautzen duten prozedura eta tramiteak sinpletzea; irizpide horiek gaur egungo arau-proiektuan kontuan hartzen dira.

ErabereannabarmentzekoadaEuskalTurismoaren2010-2013koLehiakortasun eta Berrikuntza Plana, sektorearen erronka handiak identifikatzen dituena: turismo-industriaren hazkunde jarraitua eta iraunkorra, Euskadiren nabarmentasuna helmuga turistiko gisa eta turismoaren aintzatespena, nola gizarte-eremuan hala eremu instituzionalean.

Testuinguruan, Dekretu hau hotelez kanpoko turismo-ostatuko eskaintza honen lehiakortasunari on egiteko sortu da. Ere berean, garapen iraunkorrari edo irisgarritasunaren sustapenari buruzko balioak islatzen dituzten aurreikuspenak txertatzen ditu, lehengo araudian behar bezala ageri ez ziren alderdiak.

Hori lortzeko, kanpinen euskal sareko lehiakide nagusien kalitate-estandarrekin parekatzea izan da helburu, instalazioen segurtasuna ahaztu gabe.

Halaber, elementu edo aterpetxe finkoen instalazioa arautu da.

Beste alde batetik, beste esanahi bat hartu du Administrazioak alderdi jakin batzuetan duen esku-hartzeak, adibidez alderdi hauetan: prezioak, denboraldi-aldaketak, barne araubiderako araudia, etab., dela alferrikako tramiteak baztertuz, dela derrigorrezko alde aurretiko baimenaren orde jakinarazpen simple bat ezarriz.

Azkenik, dagoen prozedura doitu egin da errazagoa eta sinpleagoa izan dadin, adibidez, orain arte indarrean egon den baimenen araubidearen orde erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea ezarriz, eta alderdi jakin batzuk arautuz, adibidez tramitazioaren iraupen osoa, administrazio-isiltasunaren ondorioak, etab.

## XEDAPENAK

### **I. Tituluak (Xedapen Orokorrak) (1.etik 7.era bitarteko artikulua)**

Dekretu honen xedea eta aplikazio-eremua eta kanpaketa-turismorako turismo-establezimenduen motak definitzen ditu, eta horien guztien baterako ezaugarri nagusiak arautzen ditu.

Zehazki, xedea Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean kanpaketa-turismoko modalitate hauek arautzea da: kanpinak, kanpaketa-eremuak eta iragaitzazko autokarabana eta karabanen harrerarako eremu bereziak.

**II. Tituluak (8.etik 62.era bitarteko artikulua) Kanpinak** arautzen ditu, sei kapitulutan egituratuta. Lehenengo kapituluak xedapen orokor batzuk

aipatzen ditu, besteak beste kontzeptua, kokalekua, aldi baterako okupazioa eta kanpaketa-gunearen antolaketa, partzeletan beste elementu finko batzuk debekatzea, partzelen salmenta eta azpierrentamendua debekatzea, karabana, autokarabana eta etxe mugikorren zaintza, hornitzea eta atontzea, itxiturak jartzea, kanpaketa-gunea partzelatzea, ostatu-edukiera eta lekupena.

Gainerako bost kapituluetan osorik arautzen dira zerbitzuen eskakizunak, gutxieneko azpiegiturak, kategorizazioa (luxuzkoa, 1. kategoria, 2. kategoria eta 3. kategoria), establezimendu horien funtzionamendu-araubidea eta prezioa, baita erabiltzaileen eta operadoreen eskubide eta betebeharrak ere, eta jarduera arautzeko aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpenaren araubidea. Halaber, plazaren kontzeptua pertsonaren kontzeptua bezala erabiltzen da.

21/12j

**III. Tituluan (63.etik 71.era bitarteko artikulua)** berez kanpinaren alternatiboa den establezimendu mota bat arautzen da, **kanpaketa-eremu naturalak**. Horiek zati batean landa-kanpinak ordeztu dituzte eta naturarekin harreman zuzenagoa daukan turismoa eskaintzen dute. Alde horretatik, erabiltzaileen ostaturako aterpetxe finkoak edo horiekin pareka daitezkeenak instalatzea debekatzen da.

**IV. Tituluak (72.etik 84.era bitarteko artikulua)** gure antolamenduan oso berria den figura txertatzen du, turismo-sektore garrantzitsu batek – autokarabanistak– askotan eskatzen duena. **Iragaitzako autokarabana eta karabanen harrerarako eremu bereziak** dira horiek, gero eta handiagoa den turismo-eskari horri erantzuna eman nahi diotenak. Titulu honetan osorik arautzen da gune horien antolamendua.

**V. Titulua Kanpaketa libreari buruzkoa da (85. eta 86. artikulua)**. Mota horretako jarduera kontrolik gabe egiteak ingurunean izan dezakeen eragina eta jarduera hori segurtasunari, lurzorua jabetza eta erabileraren errespetuari eta natur ingurunearen eta balio historiko eta monumentalen kontserbazioari buruzko gutxieneko baldintza batzuekin irauarazteko zailtasuna kontuan hartuta, kanpaketa librea orokorrean debekatzea erabaki da. Kanpaketa librea zehazki definitzen da, Autonomia Erkidegoko naturgune babestuei buruzko berriazko arauditik eratorritako araubide partikularrei kalterik egin gabe.

## VI. Titulua Ikuskapenari eta arau-hausteei buruzkoa da (87.etik 89.era bitarteko artikulua).

Testua burutzeko, bi **xedapen gehigarri** ageri dira, eta horietako lehenengoak sektorearen lehiakortasunari eta kalitateari pizgarriak emateko programa batzuk aurreikusten ditu. Halaber, bi **xedapen iragankor** dauzka lehendik dauden kanpinen egoera erregularizatzeko eta Turismo Enpresa eta Establezimenduen Erregistroan inskribatutako turismo-kanpalekuak araudi berriaren eskakizunetara egokitzeko, horretarako epe jakin batzuk daudela, eragindako aldaketen garrantzia eta aldaketa horien bideragarritasuna kontuan hartuta. **Xedapen indargabetzaile bat; bi azken xedapen**, araugarapenerako gaikuntzari eta Dekretua indarrean jartzeari buruzkoak; eta Plaka Bereizgarriak ageri dituen **Eranskin bat**.

21/12*j*

### III.- IRITZIAK

#### III.1 IRITZI OROKORRAK

Kontsultatu zaigun agiriak garatu egiten du Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legea, Turismoa Antolatzeko Legea Aldatzeko abenduaren 23ko 16/2008 Legeak aldatu zuena. Azken horrek 22. eta 24. artikuluetan kanpaketa-eremu naturalak eta autokarabana eta karabanen harrerarako eremu bereziak arautu zituen, hurrenez hurren, azken horiei garrantzi berezia emanaz. Izan ere, hori izan zen Espainiako Estatuan autokarabanen eremuetarako araudi bat kanpalekuen arauditik bereizita sortzeko aukera ezarri zuen lege mailako lehenengo araua.

#### *22. artikulua. Kanpaketa-eremu naturalak.*

*Kanpaketa-eremu naturalak dira eremu batzuk kokapen, topografia eta baso-aberastasun originala edo bestelako inguruabar berezi behar bezala egiaztatu bat daukatenak eta prezio baten truke, opor- edo aisialdi-helburuekin, aldi baterako okupatzeko baliagarri direnak. Okupazio hori, kanpinekin alderatuta, naturari dagokionez hurbiltasun handiagoz eta ustiatze-moduari dagokionez modu arinagoz egingo da, eta okupazio-*

*baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira.*

*Kanpaketa-eremu naturalak natur gune babestuetan edo Natura 2000 sareko tokietan ezarri ahal izateko, kasuan kasuko antolaketa- eta kudeaketa-planetan jasotako baldintzak bete beharko dira. Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak uste baldin modu nabarmenean eragin dakiekeela Natura 2000 sareko tokiei, habitat naturalen eta basa fauna eta floraren kontserbazioari buruzko 92/43/CEE direktibak 6. artikuluan dakarren ebaluazioa egingo zaio kanpaketa-eremuaren proiektuari. Horrez gainera, bete beharrekoa izango da ingurumen-eraginaren ebaluazioari dagokionez kasu bakoitzean aplikatzekoa den legerian ezarritakoa ere.*

*24. artikulua. Iragaitzazko autokarabanen eta karabanen harrera-eremu bereziak.*

*1. Iragaitzazko autokarabanen eta karabanen harrera-eremu bereziak dira lursail batzuk erregelamendu bidez zehazten den motako ibilgailuek, bidean doazela atsedena hartze aldera eta ibilgailuetan pilotutako hondakinak uzte aldera, prezio baten truke, aldi baterako okupatzeko direnak. Lursail horiek jendearentzat irekita eta behar bezala mugatuta, hornituta eta egokituta egongo dira eta erregelamenduz zehaztutako ibilgailuek gutxieneko kopuru batean okupatuko dituzte.*

*2. Iragaitzazko autokarabanen eta karabanen harrera-eremu bereziak soilik horrelako eta antzeko ibilgailuek erabiltzeko dira. Aurreko atalean sartutzat hartu ez daitezkeen kanpin-dendak edo aterpe mugikorak ezin izango dira haietan instalatu. Era berean, eremu berezi horietan ezin izango da instalatu aterpetxe finkorik edo antzeko bestelakorik, erabiltzaileek ostatu hartzeko.*

*3. Debekatua dago establezimendu berezi horietako lursailak saldu edo azpierreant ematea.*

*4. Eremu hauek erregulatzen dituen erregelamendua bat etorriko da kasu bakoitzean aplikatzekoa den ingurumen-legerian ezarritakoarekin.*

Arauaren balorazio orokorra positiboa da, alde batetik jada zaharkituta dagoen Euskal Herriko Kanpinen Antolaketari buruzko martxoaren 16ko 41/1981 Dekretua modernizatzen eta eguneratzen duelako, alderdi guztien arauketa askoz zabalagoarekin, eta bestetik 6/1994 Legean araututako hainbat turismo-modalitate garatzen duelako. Modalitate horiek 2008ko aldaketan txertatu ziren eta arauzko garapena egitea falta zen, batik bat karabanen eta autokarabanen harrerarako eremu bereziei dagokienez. Turismo-modu hori goraldian dago, urte bakoitzean mota horretako 200.000 ibilgailu inguruk Estatu mugak zeharkatzen dituztela eta horietan milioi erdi turista inguruk bidaiatzen dutela kalkulatu baita.

21/12*i*

Hala ere, Batzorde honen ustez Dekretu-proiektu honetan, alde batetik, alderdi batzuk hobetu ahal dira; eta beste alde batetik, kontuan hartu beharko da ziurrenik kanpin moten sailkapenak bateratuko direla, sektorearen lehiakortasunaren onerako. Hala, Turismoko Plan Nazional Integralaren (PNIT) barruan, Autonomia Erkidegoen artean kanpinen sailkapenak bateratu ahal izateko lan egiten ari da, sektorearen eskari historikoetako bat dela kontuan hartuta.

Halaber, uste dugu gure kontsultarako aurkeztutako testua turismo-enpresa eta -establezimenduen xedapen arautzaileak Moldatzeko Dekretu-proiektuaren babespean geratu ahalko litzatekeela, testu horrek turismo-eskaintza osatzen duten establezimenduen tipologia diferentea barnean hartzen duen neurrian; eta ikusmolde bateratu horri esker arautze uniformeagoa eta kudeaketa sinpleagokoa egin ahal izango da.

Izan ere, bi Dekretuen edukian elementu komun asko daude: erantzukizunpeko adierazpenaren beharra, aseguru kontratatu beharra, dokumentazioaren aurkezpena,...

Beste hitz batzuetan, Batzorde honek elementu konpartituekin testu bakar eta komuna egitea proposatzen du.

## III.2 BERARIAZKO IRITZIAK

### Zioen azalpena

Agerikoa da kontsultatu zaigun agiriak hizpide dugun jarduera-sektorea arautzeko beharrezana justifikatzen duten lege arrazoiak eta arrazoi orokorrak azaldu behar dituela, turismo-sektore osoari dagozkion alderdi orokorretatik abiatuta, kanpinen kasu zehatzarekin amaitzeko.

Alderdi orokor horiek Dekretu-proiektuan ageri dira, zehazki: Lehenengo paragrafoa (“Garapena eta proiektzioa...); hirugarrena (“Izan ere, Legeak...”); zortzigarrena (“Bereziki esanguratsua den beste aldagai bat...”); bederatzigarrena (“Era berean nabarmentzekoa da...”); eta azkena (“Azkenik, doitu egin da...”); baina komenigarria litzateke azaltzea lehenengo eta bederatzigarren paragrafoek nola lagunduko luketen helburu orokorra eta sektorearentzako erronkak lortzen.

Orain arte indarrean egon den “baimen araubidea”ren orde “erantzukizunpeko adierazpena”ren araubidea ezartzeari dagokionez, aldaketa hori 2006/123/CE Zuzentarauan justifikatuta dagoen arren; berebiziko garrantzia daukala daukan hartuta komenigarritzat jotzen dugu horri buruzko azalpen zabalago bat ematea, eta ez besterik gabe arrazoi gisa erraztasun handiagoa aipatzea.

Beste alde batetik, seigarren orrian, laugarren paragrafoan, teknologia berriak txertatzeari buruzko aipamenei bat gehitzea gomendatzen da. Horren arabera honako hau gehitzea proposatzen da:

Helburu horrekin, kanpinen euskal sareko lehiakide nagusien kalitate-estandarrekin parekatzea izan da helburu, zerbitzu gehigarrien eskaintza bideratuz eta lehendik dauden zerbitzuen kalitatea hobetuz. Hori guztia, funtsezkoa den gauza bat ahaztu gabe, instalazioen segurtasuna, alegia, segurtasun horren esijentzia indartuz, **eta araudi zaharra eguneratuz, ez baitziren alderdi jakin batzuk kontuan hartzen.**



### 3. artikulua. Eskumenak

Honako hau gehitzea proposatzen da:

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoei eskumenak esleitzean ez zaie kalterik egiten gainerako Administrazioei, **dena delako arloan** beren zereginak gauzatu behar dituztenean.

### 4. artikulua. Kontratuen araubidea

Honako hau gehitzea gomendatzen da, juridikoki zuzenagotzat jotzen delako:

1.- Establezimenduen titularrek erabiltzaileekin sinatzen dituzten kontratuek, xedari eta iraupenari dagokienez, Turismoa Antolatzeko **martxoaren 16ko 6/1994 Legean** aurreikusitako mugak eta Dekretu honetan zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte.

### 5. artikulua. Erantzukizun zibileko aseguruua

- Lehenengoz, uste dugu gutxieneko estaldurak arautzeko erreferentzia gisa Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kalte pertsonaletarako ezartzen duen kalte-ordainen baremoa (ikusi Zuzendaritza Nagusi horren 2012ko urtarrilaren 24ko ebazpena) eta mota horretako establezimenduetan gertatutako ezbeharretan emandako epai judizialak hartu beharko liratekeela. Estaldura hori plazen/kanpatutako pertsonen kopuruaren arabera haztatu beharko litzateke.
- Bigarrenez, honako hau gehitu beharko litzatekeela uste dugu:

1.- Hartzaileen edo hirugarrenen osasunerako, segurtasun fisikorako eta **beren ondasunetarako** arrisku zuzen eta zehatza dagoenez, Dekretu honetan araututako establezimendu guztiek erantzukizun zibileko aseguru eguneratua eduki beharko dute, funtzionamenduaren arrisku normalak bermatuko dituena..

### 7. artikulua. Jendearentzat irekitzea eta barne araubidea

- 1. puntuan aldaketa hau gomendatzen da:

1.- Dekretu honetan araututako establezimendu eta instalazioetan edonor sartu ahal da, eta jendeari prezio bidez bitartez eskaintzen zaizkie. Horretarako **muga bakarrak izaeraren eta plaza kopuruaren ondoriozkoak dira, indarra duten legetan ezarritakoak eta, halakorik bada, barne araubideko arauetan ezarritakoak**, eta establezimendu eta instalazio horietan sartzea ezin izango da eragotzi, inola ere, jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial arrazoi dela.

21/12j

- Eta 2. puntuan, jarraian aipatzen dena:

2.- Establezimenduen barne funtzionamenduko eta erabiltzaileen bizikidetzako arauak eta instalaziok erabiltzeko baldintzak, establezimenduen zuzendaritzak onesten duen barne araubideko araudian ezartzen dira. Araudi horrek Dekretu honetan eta aplikatu daitezkeen gainerako arauetan ezarrita dagoena bete behar du. Araudi hori, hain zuzen ere, nahitaez bete behar dituzte establezimenduetako langileek zen erabiltzaileek. **Araudia bezeroei zein langileei jakinarazi beharko zaie.**

### 9. artikulua. Kokalekua

2.c) atalari dagokionez, gure orografia kontuan hartuta, honako hau gehitzea gomendatzen da:

c) **Amildegietan, ibaien uharretan** eta ibai-ohe lehorretan dauden lurretan eta euri-jasen edo ibaien ur-goraldien ondorioz uholdeak jasan ditzaketen lurretan, dagozkien birgertatze-aldiak kontuan hartuta, baita beste edozein arrazoi dela-eta Administrazioak osasungaitz edo arriskutsutzat jotzen dituen lurretan ere.

### 10. artikulua.- Aldi baterako okupazioa eta kanpaketa-gunearen antolaketa

1. artikuluan honakoa azaltzen da:

*“Erabiltzaileak kanpin batean gehienez 11 hilabetez egon ahal dira urte natural bakoitzean. Epe hori agortzen dutenek kanpinetik irten beharko dute, eta kanpin horretan bertan partzela bat okupatzeko kontratu berri bat ezin izango dute egin aurreko kontratua iraungitzen denetik hilabete oso bat igarotzen den arte. Kanpinean atal honetan adierazi dena baino denbora luzeagoan geratzea egoitatzat hartzen da, eta era beran, arau-hauste larritzat ere bai.”*

Harrigarria gertatzen zaigu establezimendu iraunkorra arau-hauste larritzat hartzea, beste arau batzuetan –gure ingurune geografiko hurbilean ere bai– egoitza-erabilera baimentzen eta, are gehiago, sustatzen denean, eta areago, gaur egungo egoera sozioekonomikoa kontuan hartzen bada eta horrela negozio-zoko berriak sortzeko aukera ematen dela ulertzen bada.

21/12j

### 13. artikulua. Eraikinak

Ez du ematen artikulua, bere idazkuntzan, egokia denik. Honako hau izan daiteke idazkuntza egoki bat (besterik esan nahi ez bada, behintzat):

Kanpatutako pertsonen erabilera kolektiborako eraikinak ingurunean modu harmonikoan ~~integratzen dira~~ **integratu behar dira**, eta dagozkien sektoreko arauak nahiz udal arauak ~~errespetatzen dituzte~~ **errespetatu behar dituzte**.

### 14. artikulua. Karabana, autokarabana eta etxe mugikorren zaintza

Komenigarria litzateke “zaintzapean” esamoldeak zer esan nahi duen azaltzea 2. paragrafoaren amaieran.

### 17. artikulua. Itxiturak jartzea

2. puntuaren beste idazkuntza bat gomendatzen da:

**Erresistentzia eta segurtasun bermeak ematen dituen, kanpotik inor sartzearagozten duen eta ingurunean modu harmonikoan integratu daitekeen edozein material mota erabil daiteke, alanbre arantzaduna izan ezik.**

### 21. artikulua. Lekapena

3. puntuan honako hau gehitzea gomendatzen da:

3.- Lekapenak ezin die inola ere eragin instalazioko segurtasun elementuei, **ezta instalazioen higiene eta osasun baldintzei ere.**

22. artikulua. Ur edangarriaren hornidura

1. puntu berri bat gehitzea gomendatzen da (oraingo 1. puntua aurrerantzean 2.a izango da):

**1. Turismo-kanpaleku guztiak ur edangarriaren hornidurarako beharrezkoak diren instalazioak izango dituzte.**

Eta hori, proposatutako testuak kontsumo arloko araudia betetzearen aipamena egiten duelako baina ez duelako espresuki ezartzen ur edangarriko instalazioak edukitzeko betebeharra, hori arauan agertu behar den arren.

21/12j

24. artikulua. Zaborrak eta hondakin solidoak tratatu eta kentzea

Bigarren paragrafoari dagokionez, hau gehitzea gomendatzen da:

Eguneroko entrega aurreikusten ez bada, kanpinaren titularrak egunero bilduko direla eta biltegitratze **higienikoa** egingo dela bermatu beharko du. Horri dagokionez, udal agintariek ezartzen dituzten baldintzak bete beharko dira, geroko kudeaketa bermatu ahal izateko.

29. artikulua. Balioen zaintza

Komenigarritzat jotzen dugu honako aldaketa hau:

Kanpinak ~~balioak~~ **objektu baliotsuak** zaintzeko zerbitzua eduki behar du. Zerbitzu hori irekita egon behar da harrera-gunearen ordutegian.

30. artikulua. Argindar hornidura

Ohartarazi nahi dugu “anpereak” intentsitate-neurria direla, eta potentzia-neurria aipatu beharko litzatekeela, hau da, “wattak”.

31. artikulua. Argiak

1. puntuan, komenigarritzat jotzen dugu ezartzea gaueko eta/edo goizaldeko zein ordu zehatzetan egongo diren argiak piztuta, hau da, ordu honetatik ordu honetara, bi kasuetan.

33. artikulua. Barneko bideetara sartzea

38. artikuluko 1.2 atalean ezarrita dagoenarekin bat etorriz, 2. puntuan jarraian aipatzen dena gehitzea gomendatzen da:

2.- Kanpin guztiek barneko bide kopuru nahikoa eduki behar dute suteak itzaltzeko ibilgailuen eta ekipoen zirkulaziorako, baita, larrialdirik egonez gero, behar bezala ebakutzeko. **Nolanahi ere, zoladurak behar bezalako drainaketa edukiko du.**

38. artikulua. Katetoria lortzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak

22. orrian, 1.4 ITZALAK taularen ostean, testu hau ageri da:

21/12j

“(1) Puntu honetan eskatzen den azaleraren erdia itzala egiteko sistema artifizial egokiekin ekipatuta egon daiteke. Sistema horiek ez dira behar ez den moduan nabarmendu behar.”

Gure ustez beharrezkoa da irizpide batzuk ezartzea “ez dira behar ez den moduan nabarmendu behar” esatean zer ulertzen den definitzeko.

40. artikulua. Barne araubiderako araudia

2. paragrafo bat gehitzea gomendatzen da:

**Araudia beti egongo da erabiltzaileen eskura, eta harrera-gunean egongo da, ikusteko moduan.**

45. artikulua. Prezioak ezarri eta argitaratzea

3. puntu bat gehitzea gomendatzen da:

**3. Prezioak jendaurrean erakutsi beharko dira establezimenduaren sarreran, ikusteko moduko leku batean, erraz irakurri ahal izateko.**

Eta hori, prezioen ezarpena ondo araututa egon ez arren, publizitatea behar bezala araututa dagoelako, eta uste dugu txertatu behar dela.

49. artikulua. Zuzendaritzaz arduratzen den pertsona

h) atala gehitzea gomendatzen da:

**h) Erabiltzaileek utzi dituzten objektuak establezimendutik ateratzea o erabiltzaile horiek instalatu dituzten elementuak ateraraztea, kanpin jardueraren garapen eta erabilera normalerako desegokiak badira.**

50. artikulua. Harrerako langileak

Honako hauek gehitu eta kentzea gomendatzen da:

c).- Kanpinaren aurka aurkeztutako erreklamazioak artatzea, **eta erreklamazio-orriak entregatzea.**

d).- Fakturak egitea eta faktura horien **zenbatekoa jasotzea.**

e) ...

~~f).- Bezeroei informazioa ematea arriskuren bat dakarten instalazio edo zerbitzuei eta horien inguruan hartutako segurtasun-neurriei buruz.~~

21/12j

f) atala mantendu beharko litzateke soilik behin-behinekotasuneko eta ebazpen azkarreko kasuekin zerikusia izanez gero.

59. artikulua. Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzea

2. puntuan honako hauek gehitzea eta aldatzea gomendatzen da:

2.- Erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, eta, aurreko paragrafoan azaldu den egiaztapenaren **emaitza gisa** dagokion Lurralde Ordezkaritzako zerbitzu teknikoak identifikatzen badu emandako informazioa zehaztugabea edo faltsua dela edo funtsezko datuak ezkututzen dituela, edo, hala badagokio, agintari eskudunek egiaztatutako eskakizunak betetzen ez direla, turismo arloan eskuduna den organoak, 6/1994 Legearen 8. artikulua araberaren arabera, prozedura bat hasi ahal izango du, titularrak egokiak diren ebidentziak edo deskarguak alegatu eta aurkeztu ahal izan ditzan. Egindako jarduerak kontuan hartuta, ebazpen arrazoitu baten bidez ~~agindu ahal izango du~~ **aginduko du**,...

63. artikulua. Kontzeptua

Artikulu hori kanpaketa-eremuei buruzkoa da; bertan adierazten da aldi baterako egoitzaren eskakizun eta helburuak bete behar dituztela. Hala ere, ez dira kanpinak, eta ondorioz, geure buruari galdetzen diogu horien eskakizunak nola eta non dauden araututa.

### 68. artikulua. Eskakizunak

- 2. puntuan telefono bat aipatzen da, baina ez dago jakiterik telefono publikoa den.
- 3. puntuari dagokionez, paragrafoak azkenean “aldizkakotasun egokia” aipatzen du, baina ez da aipatzen zein den aldizkakotasun hori, bi, hiru,... egunetik behin edo beste neurriren bat izan daitekeelako.

### 72. artikulua. Kontzeptua

2. paragrafo bat gehitzea gomendatzen da:

21/12j

**Autokarabanen harrera-eremu berezi batek bi espazio berezi integratzen ditu: Aparkalekua eta Zerbitzu-gunea.**

Hori gehitzea justifikatzen da eremua integratzen duten espazioak agertu behar direlako, eta berezitako espazioak izan behar direla aipatu behar delako.

### 79. artikulua. Azpiegiturak eta gutxieneko zerbitzuak

Gaztelaniaz “los” ratios dioenean, artikuluari buruz oharra egin behar dugu, “ratios” genero femeninoko hitza delako; horrenbestez, “las ratios” izan beharko litzateke.

### 80. artikulua. Gune berezien eskakizunak

Berriro ere ohartarazi behar dugu honi buruz:

- telefonoa eskuragarri dagoen aipatzea, eta ez aipatzea telefono hori publikoa den ala ez,
- gaztelaniaz, genero femeninoko “ratios” hitzarekin doan “los” artikulua.
- “anperek” neurria, intentsitate-neurria delako, eta potentzia-neurria aipatu beharko litzatekeelako, hau da, “wattak”.

### 83. artikulua. Bereizgarria eta seinaleak

3. puntuan honako hau gehitzea gomendatzen da:

3.- Eremuaren barruan, zerbitzu eta instalazioen seinale egokiez gain, gutxienez ibilgailuen gehieneko abiaduraz, bideen norabideaz eta larrialdiko irteeren eta su-itxalgailuen kokalekuez ohartarazteko seinaleak instalatu beharko dira, **baita erabiltzeko baldintzez ohartaraztekoak ere, gutxienez piktograma bidez, edo testuarekin, euskaraz, gaztelaniaz edo orokorrean erabiltzen den beste hizkuntza batean.**

Horren justifikazioa da proposatutako testuan ez dela agertzen erabilera-baldintzen informazioa ezartzeko betebeharra, eta baldintza horiek adierazi behar direla uste dugu.

85. artikulua. Kanpaketa librearen debekua

Kanpaketa librea debekatzen da oporretarako edo aisialdirako; eta geure buruari galdetzen diogu ez ote litzatekeen orokorrean debekatu behar, administrazio-baimenik eduki ezean.

21/12j

88. artikulua. Beste Herri administrazio batzuen eskumenak

Gaztelaniaz bigarren “en virtud” horren ordeaz “al amparo” jartzea.

Lehenengo Xedapen iragankorra. Egokitzapena

3. puntuari aipatzen denez, “Turismo arloan eskuduna den organoak, urtebeteko epean, kanpinak sailkatuko ditu...”. Alde horretatik, komenigarritzat jotzen dugu ezartzea epe hori noiztik hasiko den zenbatzen.

Beste alderdi batzuk: Epealdi iragankorra

Dekretu-proiektuaren artikuluek lehendik eraturik dauden kanpinetarako eta beste turismo-modalitate batzuetarako eskakizun jakin batzuetan aldaketak egiten dituzte (ostatu-edukierak, funtzionamendua, erreserbak, aseguruak...), EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatu beharrekoak. Alde horretatik, gure iritziz epealdi iragankor bat arautu beharko litzateke aterpetxe horiek araudi berrira egokitu ahal izateko.



#### **IV.- ONDORIOA**

---

EAEko EGABek egokitzat jotzen du Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kanpaketa-turismoko modalitate batzuk arautzeari buruzko Dekretu-proiektua tramitatzea, organo aholku-emaile honek egindako gogoetak kontuan hartuta.

21/12*j*

Bilbon, 2012ko irailaren 21ean

Presidentea O. E.  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1604-12